

BAKE EZEZAGUNAREN BILA**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

Bake positiboa, indarkeria kulturala eta egiturazko indarkeria.
Bakearen aurka egiten ditugun ekintzek zer ondorio dituzten.
Gure eguneroko bizitzan bakea urratzen duten egoerak aurkitzea.
Errespetua eta herritartasuna.
16. GJHa

Iraupena

Saio bat.

Materiala

"Indarkeria-bakea kontzeptuak" infografia ([esteka](#))

Garapena

1. fasea (banakakoa):

Eskatu parte-hartzaileei ideia edo esaldi labur batean irudikatzeko zerk sentiarazten dien bakea. Gogoeta errazteko, argibide hau eman daiteke: adierazi bakea sortzen diguten edo, zuen ustez, gure inguruan bakea sortzen duten egoerak, giroak, pertsonak...

Egin 4 edo 5 pertsonako taldeak eta esan ikasleei adosteko zer den bakean egotea, pertsona bakoitzak hausnartutakoa oinarri hartuta. Hortik abiatuta, taldearentzat zer den bakea landu daiteke, alderdi guztiak (komunak eta ez-komunak) eskematizatuz. Horri esker, ikusi ahal izango da zer den taldearentzat bake-egoera, harmonia-egoera, egoera pertsonala eta kolektiboa.

2. fasea (talde handian)

Eskatu taldeei beren lana bateratzeko. Idatzi arbelean ateratzen diren ideiak.

Aurkeztu infografia eta landu talde handian bakearen kontzeptu zabala, talde-lanean atera ahal izan diren alderdi guztiak argituz, eta lanean sortu ez denari garrantzi berezia emanaz.

Egin gogoeta

Egin gogoeta honelako galderetatik abiatuta:

- Jabetzen al zineten zeinen zabala den bakearen kontzeptua?
- Talde-lanean ari zinetela, gatazkekin al zuten zerikusia atera ziren bakearen kontzeptuak? Agertu al da egiturazko indarkeri edo indarkeria kultural gisa sailkatu dezakegun elementurik?
- Zenbat egoeratan egon daiteke arriskuan bakea gure eguneroko bizitzan eta gure gizartean?
- Nork edo zer egoerak eragozten digute bakeaz gozatzea?
- Aztertutako alderdi guztietatik, zuen ustez, zer da funtsezkoena gizarte batean bakea egoteko? Betetzen al da hori gure inguruan?
- Pentsatu al duzue zenbat pertsonak ezin duten gozatu bakeaz, guk egiten dugun bezala?
- Zer egin dezakegu gure bakea arriskuan ikusten dugun eguneroko bizitzako egoeren aurrean?